

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK BRASILERA JOATEKO MISIO KOMERTZIALA ANTOLATU DU

Donostia - 2017ko Maiatzaren 19a - Brasilerako joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak Sailaren laguntzarekin.

Misioa maiatzaren 22a eta 26a bitartean egingo da eta 12 enpresek parte hartuko dute: 4 gipuzkoar, 7 bizkaitar eta arabar 1. Sektoreei dagokionez, makina-erreminta, eraikuntzako materiala, instalazio elektrikoak, ingenieria, automozioa, industriako produktuak,...

Misio honen helburu nagusia Brasilgo enprekin merkatuaren bilakaera nolakoa izaten ari den egiaztatzea izango da (azken urtean beherakada handia izan duen merkaturia da eta Brasilerako), eta bide batez merkatu honetan interesa duten euskal enpresen harreman komertzialak sustatzeko bide berriak eraikitzea.

Brasil

Brasil munduko bostgarren herrialde handiena da Errusia, Canada, Txina eta EEBBen atzetik. Herrialde honetako erdi mailako biztanleria hazten ari da, C klasea bezala ezagutzen dena, eta biztanleri mota hau biztanlegoaren erdia da dagoneko, kontsumo ondasunen sektoreei aukera handiak eskaintzen dielarik, herrialdea bisitatuko duten gure enpresen sektoreei hain zuzen ere.

Gaur egun, ekonomia arloan indikatzaile batzuk gora egiten ari direla ikusten da, arlo politikoan berriz, nahasmenak jarraitzen du. 2017ko lehenengo hiruhileko datuek hori adierazten dute eta ekonomiak bere jaitsiera bukatu duela baieztatzen dela dirudi, nahiz eta giro politikoak eta sozialak ezegonkorra izaten jarraitu dezakeen.

Esportazioei dagokionez, 2016an Euskal Autonomi Erkidegoak 218 miloi euro baino gehiago esportatu zituen Brasilerako, honek 2015ean egindako operazioen %35eko jaitsiera suposatzen duelarik. Euskal Autonomi Erkidegoak Brasilerako esportatzen dituen produktu nagusienak honako hauek dira:

2016 Urtea - Euskaditik Brasilerako esportazioak		
ESPORTATUTAKO PRODUKTUAK	Miloi €	guztiaren %
AIREONTZIAK, ESPAZIOKO IBILGAILUAK ETA ZATIAK	53,8	%24,6
GALDAKETA eta MAKINAK	45,7	%20,9
MAKINA GAILUAK eta GAILU ELEKTRIKOAK	36,7	%16,8
IBILGAILUAK eta BURDIN BIDEENTZAT GAILUAK	18,5	%7,8
GALDAKETA, BURNI edo ALTZAIRU MANUFATURAK	16,7	%7,8

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347